

2026. URTERAKO AURREKONTUA



2026. URTERAKO ESKOLAKO KUDEAKETA PLANA

SARRERA

Goierri Eskola osatzen duten estamentuak informatzeko eta jakinaren gainean jartzeko egiten den Kudeaketa Planaren bidez, Eskolak 2026ean garatzeko asmoa duen ihardueraren errealitate ekonomikoa koantifikatu nahi da, iharduera horren zatirik nagusienak Heziketa Arautua eta Etengabeko Prestakuntza izanik.

Plan honetan, ekonomiaren ikuspegitik, Sarreraren eta Gastuen epigrafeetako osagai desberdinek izan ditzaketen gora-beherak iragartzen ahalegindu nahi dugu bakarrik, iharduera-maila zehatz bat lortzeari dagozkionak, Eskolak Kudeaketa aldi honetan garatu nahi dituen helburu koalitatiboen azalpena saihestuz. Horregatik, orain gauzatzen den Plana, eta apartatu honi dagokionez, helburu koantitatiboen azalpena besterik ez da izango.



2026. URTERAKO SARREREN AURREIKUSPENA

Eskolaren diru-sarrera nagusia, lehenengo maila batean, Heziketa Araututik datorrena da eta Hezkuntza Sailarekin dugun Hitzarmen-Itunaren bidez gauzatzen da. Horri matrikulaziotik, kuotetatik eta tailerreko eta eskolako materialetik sortzen diren diru-sarrerak erantsi behar zaizkio. Bigarren maila batean, etengabeko prestakuntzatik datorren diru-sarrera dago, maila desberdinak dituen berau eta erakunde eragile ezberdinak ere bai. Baita ere ingenieritzan emandako ikasketak sarreretan dauka bere azalpena. Beste maila batean edo iharduera jakin baten garapenari atxiki gabe, beste sarrera batzuk sartuko dira.

2026 urtean, honako hau izango da **Sarrer**en atala osatzen duten epigrafeen estimazioa.

I.- HITZARMEN-ITUNA: HEZIKETA ARAUTUA

Gaur egun indarrean dagoen Hitzarmen-Itunaren arabera Eskola garatzen ari den Heziketa Arautuarengatik jasotzea aurreikusten dena, hitzartutako Unitateetan oinarritzen da. Sarrerak zuzen neurtzeko ezinbestekoa da urteko azken hiruhilabetean izatea espero diren unitateen aurreikuspena egitea, hau da, 25/26 ikasturteari dagokiona, ikasturte honetakoak ezagutu ondoren. Gauza hauek guztiak kontuan hartuta ondorengo taula honetan ikus daiteke 2026. urterako Sarreren aurreikuspena:

2025-2026 IKASTURTEA	
<i>Hezkuntza Maila</i>	<i>Unitateak</i>
Heziketa Berezia	1
Lanbide Hastapenak	8
Batxilergoa	6
Heziketa Zikloak	25
<i>GUZTIRA</i>	<i>40</i>

Beraz, koadroan agertzen diren aurreikuspenak betez gero, Eskolak guztira **5.871.232,45€** jasoko ditu talde guztiak kontzertu osoarekin daudelako eta udalen partetik **218.109,72€ko** sarrerak izatea aurreikusi da.

II.- HEZIKETA JARRAIA

Langileengana edo langabezian daudenengana zuzendutako heziketa-iharduerak Etengabeko Prestakuntzaren barruan sartzen dira, eta bertan honako iharduera-maila hauek bereiz daitezke.

1. Birziklatze heziketa irekia. HOBETUZ Planaren bidez, egiten diren erreziklai heziketa ekintzak, Heziketa Jarraierako Euskal Fundaziokoak eta Fundación Tripartitak hain zuzen ere, programaturiko ikastaroetan izena ematen duten lantegietako entepresetako ikasleei zuzenduak daude.
2. Neurritan prestatutako birziklatze heziketa. Maila honetan enpresa batek bere langileak birziklatzeko egiten duen eskariari erantzuteko prestatzen diren prozesuak sartzen dira.
3. Langabetuentzako heziketa LANBIDEren bitartez Eskolak eskaintzen dituen ikastaroak ditugu hauek.

Hemen laburtutako iharduera maila desberdinak burutuko balira, 2026. urtean **425.801,92€**tako diru-sarrera izatea aurreikusten da.

III.- IKASLEEN SARRERAK

Matrikulak, eskolako kuotak eta garraioko kuotak 2026. urtean ikasleen sarreren kopurua **465.140 €**koa izango da.

IV.- ESKOLAKO ETA TAILERREKO MATERIALAREN SALMENTA

Eskolak ikasle guztientzat erosten duen edo sortzen duen materiala - liburuak, apunteak, tailerreko tresnak eta abar- sartzen da epigrafe honetan. Urte amaieran epigrafe honen emaitza **20.000€**koa izango dela aurreikusten da.

V.- APARTEKO SARRERAK

Erakunde desberdinek, udalek, enpresek, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Kutxak, MCC-k eta besteren batek, Eskolari inbertsioetarako ematen dioten edo eman dioten kapitalerako laguntzak urtean Aparteko Sarrera gisa azaleratzen dira, bere finantzaketaren bidez egindako inbertsioen amortizazio-erritmo beretsuarekin. Kudeaketa-urte honetarako, aparteko Sarreren kopurua **740.000€**koa izango da.

VI.- BESTELAKO SARRERAK

Aurreko epigrafeetan sartzen ez diren diru-sarrerak, oso era desberdinetakoak direnak eta heziketari atxiki gabe daudenak, epigrafe honetan biltzen dira. Sarrera hauek txatarraren salmentatik, finantza-sarreretatik, Ikaslanen sostengutik, LANBIDerekin orientazio eta lanbideratze zerbitzutik, eta beste hainbat ihardueretatik etortzen dira. 2026 urterako **265.000€**ko diru-sarrera aurreikusten da.

VII.- GOIERRI GOI MAILAKO ESKOLA

Ingenieritza klaseak emateagatik GGMEri eskeinitako zerbitzuei dagokiona da. Fakturazio hau, **456.857,96€**koa izatea aurreikusten da.

VIII.- GOIERRI BERRIKUNTZA GUNEA PROIEKTUA - PROIEKTUAK

Goierri Berrikuntza Gunea proiektuak sortutako diru sarrerak dira (batez ere, alokairuak). **125.000€** izango dira.

IX.- ENPRESEI ZERBITZU TEKNIKOAK

Beste jardueren artean zerbitzu teknikoak eskaintzen ditugu, antolaketa, kudeaketa eta tekniko arloetan. Aurreikuspena **62.000€** izango dira.

X.- BESTE PROIEKTUAK

MEC-ei egindako 4 proiektu onartuak izan dira eta **40.192,16€** tako dirulaguntza aurrikusten da kontzeptu horregatik 2026 urtean.

2026. URTERAKO SARREREN LABURPENA

Kapitulua osatzen duten epigrafeetan haztatutako sarreraren arabera, 2026 ekitaldirako Eskolak, diru-sarrerari dagokienez, aurreikusten duen kopuru osoa, ondoren emango den taulan ikus daitekeen bezala, **8.689.334,21€**-takoa da.

2026.URTERAKO SARREREN AURREIKUSPENA	
<i>Epigrafea</i>	<i>Zenbatekoa</i>
Hitzarmen-lituna	5.871.232,45 €
Udala LHrako ekarpena	218.109,72 €
Heziketa jarraia	425.801,92 €
Ikasleen sarrerak	465.140,00 €
Tailerreko eta eskolako materialaren salmenta	20.000,00 €
Aparteko Sarrerak	740.000,00 €
Beste sarrerak	265.000,00 €
Goierri Goi Mailako Eskola	456.857,96 €
Goierri Berrikuntza Gunea Proiektua	125.000,00 €
Enpresei Zerbitzu Teknikoak	62.000,00 €
Beste Proiektuak	40.192,16 €
<i>GUZTIRA 2026. URTEA</i>	<i>8.689.334,21 €</i>

2026. URTERAKO GASTUEN ARREIKUSPENA

Sarrerren kapituluko epigrafe bakoitza haztatu ondoren, gastuen kapitulua osatzen duten epigrafe desberdinei ekingo diegu, kapituluaren banaketa aurreko txostenetan egindako berbera izango delarik.

Eskolak 2026. urtean garatuko duen iharduerak, aurreikus daitekeenez, jarraian azalduko diren epigrafeetan zehazten diren gastuak eragingo ditu:

I.- PERTSONALA

Eskolako pertsonalak, soldata eta lansarietan, gizarte-segurantzari dagozkionak barne, 2026. urtean eta Sarrerei buruzko epigrafeetan azalduetako irakaslanak kontutan hartuta, **6.388.744,21€**tako gastua eragingo du.

II.- ESKOLA HORNITZEKO ETA ATONTZEKO LANAK

Eskolako eraikinak eta ekipamendua egoki mantentzeko egiten diren era desberdinetako lanak jasotzen dira epigrafe honetan. Urte amaieran epigrafe honen saldoa **280.000€**takoa izango dela aurreikusten da.

III.- TAILERREKO MATERIALA ETA IKASMATERIALA EROSTEKO

Heziketa Arautuan garatzen diren praktika desberdinak egiteko erosten den materialen gastua -burdina, gasak, soldadurarako hariak, elektrodoak, aparatu elektrikoak, material mekanikoa eta abar- jasotzen da tailerreko materialari buruzko epigrafean. Eta 2026rako gastua, aurreikusten den iharduera kontuan hartuz, **210.000€**takoa da.

IV. BIDAIAK ETA GARRAIOAK

Kapitulu honetan jasotzen dira Eskolak bertako ikasleentzat kontratatzen dituen garraio zerbitzuak, Eskolako pertsonalak egiten dituen bidaiak eta mezularien garraio eta zerbitzuek eragiten dituzten gastuak. Eta gastu honen arreikuspena **220.000€**takoa da.

V.- BULEGOKO MATERIALA

Eskolak ekitaldi honetan zehar erabiliko duen bulegoko materialak **18.000€**tako gastua eragingo duela aurreikusten da.

VI.- GARBIKETA

Eskolak garbiketarako kontratatuta duen kanpo-zerbitzuak eta garbiketarako erabilitako materialak **204.750€**tako gastua eragingo du.

VII.- POSTA ETA TELEFONOA

Epigrafe honetarako aurreikusten den gastua **30.000€**takoa da.

VIII.- BEROGAILUA

Eskolako berogailuan erabilitako gas kontsumoak ekitaldi honetan, aurreikusten denez, **45.000€**tako gastua eragingo du.

IX.- ENERGIA ELEKTRIKOA

Urtean kontsumitzea espero den energia elektrikoak **85.000€**tako gastua eragingo du.

X.- FOTOKOPIAGAILUA

Fotokopiagailuaren mantendimendu-zerbitzuak aurtengo urtean zehar **10.000€**tako gastua eragingo duela aurreikusten da.

XI.- ASEGURU-POLIZA

Eskolak bertako pertsonalarentzat kontratatuta dituen arrisku-estaldura desberdinek, sutea eta lapurreta, erantzukizun zibila eta istripuak, **32.000€**tako gastua eragingo dutela aurreikusten da.

XII.- HEZIKETA JARRAIA

Epigrafe honetan heziketa jarraiak eta etengabeko prestakuntzak (tailerreko materialak, publikitateak, azpikontrataturako zerbitzuak, ...) eragindako gastua adierazten da. Aurtengo ekitaldirako planifikaturako iharduerak **25.000€**tako gastua eragingo duela dago aurreikusita.



XIII.- LANGILEEN FORMAKUNTZA

Eskolako pertsonen parte hartuko duten birziklatze-prozesuetarako **35.000€** zuzenduko dira. Atal honetan matrikuletan eta desplazamenduetan gastatzen dena jasotzen da.

XIV.- AMORTIZAZIOAK

Balioa galtzen duen aktiboko partida bakoitzak adierazten duen saldoaren arabera eta honako amortizazio-irizpide hauek kontuan hartuta: 4 urte ekipamendu informatikoetarako, 8 urte makinietarako, 10 urte altzarietarako, 20 urte instalazioetarako eta 50 eraikuntzetarako; aurtengo ekitaldirako aurreikusitako amortizazio-kostuak **600.000€**koak izango dira.

XV.- BESTELAKO GASTUAK

Epigrafe honetan era desberdinetako gastuak biltzen dira, esate baterako, Eskolako publizitate orokorra, itzulpen zerbitzuak, HETELeko kuota, aholkularitza zerbitzuak eta abar. Eta urteko aurreikuspena **180.000 €**takoa da.

XVI.- PROBISIOAK

Eskolak aurtengo ekitaldian egingo duen probisioak **58.008,25€**tako gastua eragingo du.

XVII.- GOIERRI GOIMAILAKO ESKOLA

Goierri Goi Mailako Eskolak bere eginkizuna burutzeko eragiten dituen gastuak biltzen dira atal honetan. Urte honetarako **45.000€** aurriztatu dira.

XVIII.- GOIERRI BERRIKUNTZA GUNEA PROIEKTUA

Goierri Berrikuntza Gunea proiektuak eragindako gastuak dira. Nagusienak, aholkularitza zerbitzuko gastuak eta beste zenbat gastu erantsita, urte honetan **130.000€**koak izango dira.

XIX.- ERAKUNDEI LAGUNTZAK

Goiekiri egingo zaion ordainketa **41.904,75€**takoa izango da, alokairuen konpensazio gisa.

XX.- BESTE PROIEKTUAK

MEC-ek onartutako proiektuen 2026erako aurreikusitako gastua **40.192,16€**koa izango da.

2026. URTERAKO GASTUEN LABURPENA

Eskolak 2026 urtean zehar izango duen gastua **8.678.759,37€**takoa izango da ondorengo taulan ikus daitekeen bezala.

2026. URTERAKO GASTUEN AURREIKUSPENA	
Epigrafea	Zenbatekoa
Pertsonala	6.388.744,22 €
Zaharberritze eta zaintze lanak	280.000,00 €
Tailer eta ikasmateriala erostea	210.000,00 €
Bidaiak eta garraioak	220.000,00 €
Bulegoko materiala	18.000,00 €
Garbiketa	204.750,00 €
Posta eta telefonoa	30.000,00 €
Berogailua	45.000,00 €
Energia elektrikoa	85.000,00 €
Fotokopiagailua	10.000,00 €
Aseguru-polizak	32.000,00 €
Heziketa jarraia	25.000,00 €
Langileen Formakuntza	35.000,00 €
Amortizazioak	600.000,00 €
Bestelako Gastuak	180.000,00 €
Probisioak	58.008,25 €
Goierri Goi Mailako Eskola	45.000,00 €
Goierri Berrikuntza Gunea Proiektua	130.000,00 €
Erakunde laguntzak	41.904,75 €
Beste Proiektuak	40.192,16 €
GUZTIRA 2026. URTEA	8.678.599,37€

2026. URTEKO EMAITZAREN AURREIKUSPENA

2026. urterako sarreraren aurreikuspena 8.689.334,21€takoa eta gastuena 8.678.599,37€takoa izanik, aurreikusitako emaitza **10.734,85€**-takoa izango da.



FUNDAZIOKO 2025ko itxiera aurreikuspena eta 2026ko AURREKONTUA

	2025. urteko Aurrekontua	2025. urteko Itxiera aurreikuspena	2026. urteko Aurrekontua
A. GASTUAK	8.706.638,91 €	8.413.841,40 €	8.678.599,37 €
A.1. Personala	6.333.617,06 €	5.827.124,70 €	6.388.744,21 €
A.2. Zaharberritze eta zaintze lanak	250.000,00 €	280.000,00 €	280.000,00 €
A.3. Tailer eta ikasmateriala erosketak	210.000,00 €	210.000,00 €	210.000,00 €
A.5. Bidaia eta garraioak	200.000,00 €	220.000,00 €	220.000,00 €
A.6. Bulegoko materiala	20.000,00 €	20.000,00 €	18.000,00 €
A.7. Garbiketa	194.636,82 €	195.000,00 €	204.750,00 €
A.8. Posta eta telefonoa	35.000,00 €	30.000,00 €	30.000,00 €
A.9. Berogailua	50.000,00 €	45.000,00 €	45.000,00 €
A.10. Energia elektrikoa	110.000,00 €	85.000,00 €	85.000,00 €
A.11. Fotokopiagailua	12.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
A.12. Aseguru-polizak	32.000,00 €	32.000,00 €	32.000,00 €
A.13. Hezkuntza Ez Araitua	30.000,00 €	25.000,00 €	25.000,00 €
A.14. Langile formakuntza	35.000,00 €	35.000,00 €	35.000,00 €
A.15. Amortizazioak	600.000,00 €	600.000,00 €	600.000,00 €
A.16. Bestelako gastuak	150.000,00 €	150.000,00 €	180.000,00 €
A.17. Probisioak	62.877,00 €	328.126,66 €	58.008,25 €
A.18. Goierri Goi mailako Eskola	45.000,00 €	45.000,00 €	45.000,00 €
A.19. Goierri Berrikuntza Gunea	138.794,48 €	127.557,03 €	130.000,00 €
A.20. Aparteko gastuak	40.448,55 €	40.882,68 €	41.904,75 €
A.21. Bestelako proiektuak	157.265,00 €	108.150,33 €	40.192,16 €
B. SARRERAK	8.709.181,21 €	8.422.068,04 €	8.689.334,21 €
B.1. Hitzarmen-lituna	5.778.091,90 €	5.575.410,38 €	5.871.232,45 €
B.2. Hezkuntza Ez Araitua	436.306,00 €	342.678,07 €	425.801,92 €
B.3. Ikasleen sarrerak	448.222,13 €	463.024,88 €	465.140,00 €
B.4. Tailerreko eta eskolako materialaren salme	25.000,00 €	21.000,00 €	20.000,00 €
B.5. Aparteko sarrerak	740.000,00 €	740.000,00 €	740.000,00 €
B.6. Beste sarrerak	260.000,00 €	263.072,87 €	265.000,00 €
B.7. Goierri Goi mailako Eskola	462.402,28 €	515.157,01 €	456.857,96 €
B.8. Udalak	209.432,52 €	209.432,52 €	218.109,72 €
B.9. Goierri Berrikuntza Gunea	142.461,38 €	122.141,98 €	125.000,00 €
B.10. Enpresei Zerbitzu Teknikoak	50.000,00 €	62.000,00 €	62.000,00 €
B.11. Bestelako proiektuak	157.265,00 €	108.150,33 €	40.192,16 €
EMAITZA	2.542,30 €	8.226,64 €	10.734,85 €

GOIERRI FUNDAZIORAKO 2026 URTERAKO EKARPEN KUOTA

	BIZTANLEAK	GUZTIRA
ALTZAGA	164	1.239 €
ARAMA	185	1.398 €
ATAUN	1.727	13.049 €
BEASAIN	13.846	104.616 €
GABIRIA	539	4.073 €
GAINTZA	125	944 €
IDIAZABAL	2.315	17.491 €
ITSASONDO	685	5.176 €
LAZKAO	5.862	44.291 €
LEGORRETA	1.494	11.288 €
MUTILOA	240	1.813 €
OLABERRIA	946	7.148 €
ORDIZIA	10.286	77.718 €
ORMAIZTEGI	1.266	9.565 €
SEGURA	1.473	11.130 €
ZALDIBIA	1.736	13.117 €
ZEGAMA	1.543	11.658 €
ZERAIN	281	2.123 €
GUZTIRA	44.713	337.837 €